

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARDENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

2022an auzoetan dinamizazio eta partaidetza sozialean laguntzen duten proiektuetarako auzo-elkarteentzako dirulaguntzen deialdi publikoa ebaztea

2021eko abenduaren 23an egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrek Gasteizko udalerriko auzo-elkartei 2022an dirulaguntzak emateko deialdia onetsi zuen, eta 180.000,00 euro esleitu zizkion deialdiari.

Oinarrien arabera eskatu eta aurkeztutako agiriak balioetsi ondoren, deialdiaren berariazko oinarrietan adierazitako balioespen-irizpideei jarraiki eman beharreko dirulaguntza kalkulatu zuen organo instrukzio-egileak.

2022ko martxoaren 16ko txostenean bidezko gogoetak egin dira, eta arrazoitu zen elkarteek proposatutako jarduerak, oro har, diruz lagundu daitezkeela. Zentzu horretan, auzo-elkarteen 26 eskaerak eta elkarten federazioarena onesten dira; izan ere, 2022an planteatzen diren jarduerak deialdiaren helburu nagusia betetzen dute: parte-hartzea dinamizatzea, gizarte-kohesioa sustatzea, jokabide zibikoak indartzea, integrazioa erraztea eta auzoko pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Oraindik ere osasun-krisi egoeran gaudela aintzat hartuta, elkarteek egoera aldakorraz jabetu behar dira, eta une bakoitzean ezartzen diren osasun-neurriak bete beharko dituzte, jarduerak horietara egokituta, betiere partaidetza eta gizarte-kohesioa sustatzeko helburuarekin. Horrela, aurkeztutako proiektuaren jardueretan egiten diren egokitzapen edo aldaketa guztiak idatziz jakinaraziko zaizkio Parte-hartze Zerbitzuari, hark jarraipen eta kontrol egokia egin ditzan.

Onartutako eskabideak emateko proposamena lortutako puntuazioaren arabera egin da, deialdiaren oinarrietan jasotako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eta labor-labor jasota daude espedientean ageri den emate-proposamen-txostenean. Emakida-proposamenak berrekin dakar lokalak erabiltzeko baimena ematea. Horren guztiaren berri ematen da ebazpen honen eranskinean.

Bestalde, 7.11.5 ordenantza fiskalaren V. apartatuan ezarritakoaren ildotik, eta deialdiaren oinarrietan jasotako irizpideak kontuan hartuta, proposatzen da Gasteizko udalerriko auzo-elkarteak zortzigarren tarifa ordaintzetik salbuestea (hau da, gizarte-etxeetako espazioak erabiltzegtiko tasari), baldin eta aretoak erabilgarri badaude eta dirulaguntza hauen xede den jardueraren bat egiteko bada, unean-unean osasun alorreko agintariak ezarritako araubideari jarraiki.

Horretarako, gizarte-etxeetan dirulaguntzaren xede diren jarduerak egin nahi dituzten elkarteek bertako espazioak erabiltzeko eskabide ofiziala egin beharko dute kasuan kasuko gizarte-etxean, eta orobat eskatu beharko dute erabiltzeari dagokion tasatik salbuestea, deialdi honen berariazko oinarrietako 2.4 puntuan adierazitako moduan. Eskabidea daten eta erabilgarri dauden espazioen arabera ebatziko da zentro bakoitzean, eta auzo-elkartearekin adostuko.

Aintzat hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra –testuinguru honetan, bereziki 17.3 eta 19.4 artikulua–, lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 61. eta 64. artikulua, osasun-egoera kudeatzeko eman diren jarraibideak, Udalaren Dirulaguntzak arautzeko ordenantza, eta deialdi honetako oinarri nagusiak, eta eskumenak eskuordetzeari buruz

alkateak 2019ko ekainaren 21ean emandako dekretua zein Udalaren diru-laguntzak arautzeko ordenantzaren 5.1 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.g) artikulua ikusirik, Partaidetzaren eta Gizarte Etxeen zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehenengoa. Auzo-elkarteen aurkestutako 26 eskaerak eta auzo elkarteen federazioarena onestea.

Bigarrena. Auzo-elkarteei eta auzo elkarteen federazioari ebazpen honen eranskinean zehaztutako dirulaguntzak eman eta ordaintzea, lortutako puntuazioaren arabera, 2022an jarduerak burutu ditzaten. Guztira 180.000,00 euro emango dira.

Hirugarrena. Osasun-alertak eragindako egoera berezia dela kausa, eta bizi dugun egoera aintzat hartuta, proiektuetako jardueretako asko zirkunstantzia aldakorretara egokitu beharko dira, eta osasun agintaritzak unean-unean ezartzen dituen arauetara. Proiektuko jarduerarik aldatu nahi bada idatziz eskatu beharko zaio Udalari, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren bitartez, eta hark aztertuko du aldaketaren bideragarritasuna, legezkoa eta egoki den ebaztearren, eta jarraipena eta kontrola kudeatuko, betiere honako hauek aintzat hartuta:

- Deialdiaren xedea funtsean ez aldatzea.
- Alarma-egoera aurreko unerako aurreikusitako jardueren antzekoak izatea.
- Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.
- Aldaketa egiteko eskabidea jarduera burutzeko epealdia amaitu baino lehen aurkeztea.

Laugarrena. Gizarte-etxeetan dirulaguntzaren xede diren jarduerak egin nahi dituzten elkarteek bertako espazioak erabiltzeko eskabide ofiziala egin beharko dute kasuan kasuko gizarte-etxean, eta orobat eskatu beharko dute erabiltzeari dagokion tasatik salbuestea, deialdiaren 2.4 puntuan adierazitako moduan. Eskabidea daten eta erabilgarri dauden espazioen arabera ebatziko da zentro bakoitzean, eta auzo-elkartearekin adostuko, betiere unean uneko osasun-araudia aintzat hartuta.

Bosgarrena. Gastua indarrean dagoen aurrekontuan horretarako jarritako 1822.9242.489.54 partidaren kontura egingo da.

Seigarrena. Aurrez esandakoarekin bat etorritik, eta kontuan hartuta Ondare Kudeaketaren Udal zerbitzuaren txostena –zein dosierrean jasota baitago–, auzo-elkarteei eranskinean zerrendatzen diren udal-titulartasuneko aretoak erabiltzeko baimena ematea beren jarduerak egin ditzaten, urtebeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita, deialdi honetako baldintzen arabera.

Zazpigarrena. Diruz lagundutako elkarte interesatuei erabaki honen berri ematea, oinarri nagusietan adierazitako moduan, eta orobat jakinaraztea erabakiaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi errekurtsioa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik. Kasu horretan, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi-errekurtsio berraztertze errekurtsioa –berariaz nahiz ustez– ebatzi arte.

Ondoren, berariazko ebazpena bada, bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunetik aurrera; berariazkoa ez bada, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dagokion arauarekin bat administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Zortzigarrena. Deialdi honen barruan emandako diru-laguntzak ALHAOn, udalaren iragarki taulan, webgunean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzeko agintzea, entitate onuraduna, emandako zenbatekoa eta Gasteizko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak eskatutako gainerako informazioa zehaztuta.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 7an

*Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta
Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS*

Eranskina

ELKARTEAK	PUNTUAK GUZTIRA	EMANDAKO DIRULAGUNTZA	UZTEN EDO BAIMENTZEN DEN LOKALA
Adurtzakoak	79	6812	Heraclio Fournier 30
Aranako	93	8329	Arana Gizarte Etxea - Aragoe 7
Arelegi	90	8004	Lokalik gabe
Barrenkale	64	3450	Aiztogile kalea 61
Bizigarri Zaramaga	82	7137	Iparralde 2Gizarte Etxea - Behenafarroa z/g
Burdinbide Salburua	89	5728	Estrasburgo 17 behea
Cauce Vecinal	34	1934	Uribeguela 6
Ensanche XIX	61	4859	Lokalik gabe
Errekatziki	79	3600	Jacinto Benavente 17 behea
Errota Zaharra	77	6595	Simone de Beauvoir Elkarte Etxea - San Inazio 8 3.a
Etxegorri	75	6378	Gazalbide Merkataritza gunea 41-49 Juana Jujan plaza
Fava	74	5500	Arriaga Gizarte Etxea - Francisco Javier Landaburu z/g 4.gela
Gasteiz Txiki	88	7787	Eskola kalea 9 behea
Gazteluen Auzoa	62	4969	Ariznabarra 27
Gure Auzune	88	7787	Lima 2 behea
Gure Batan	76	6486	Lokalik gabe
Hegoaldekoak	71	5944	Dantzari plaza 5
Ibailakua	94	8438	Hondarribia 34-36 (obretan)
Ipararriaga	93	8329	Arriaga Gizarte Etxea - Francisco Javier Landaburu z/g 4.gela
Judimendikoak	89	7896	Cola y Goiti 5-7 behea
Kaleartean	88	7787	Oto hiribidea 22
San Martin	89	7896	Vera Fajardo margolariaren kalea 9
Txagorribidea	87	7143	Gazalbide Merkataritza gunea 41-49 Juana Jujan plaza
Uribenogales	93	8329	Uribeguela, 6
Zabalgana Batuz	93	8329	Zabalgana hiribidea 46 behea
Zazpigarren Alaba	84	7354	Amaia Zentro Soziokulturala - Benito Perez Galdos plaza z/g
Guztira	2161	180000	